



## Larrialdietarako telefono zerbitzua.

**Prestazio mota:** Bermatua.

**Baliabide mota:** Arreta anbulatorioko zerbitzua.

**Baliabidearen xedea:** Prebentzio zerbitzua, zeinaren bitartez gailu elektroniko bat paratzen baita etxean, zentral batekin konektaturik, pertsonen segurtasuna emateko eta **gerta daitezkeen larrialdiei behar diren baliabideak erabiliz erantzuteko.**

**Onuradunak:** Mendekotasuna duten pertsonak.

**Jasotzeko baldintzak:**

- III. graduko mendekotasuna aitortua izatea (mendekotasun handia), 1. edo 2. mailakoa, edo II. graduko mendekotasuna (mendekotasun larria), 1. edo 2. mailakoa.
- Eskaera egin aurreko bi urteetan Nafarroan benetan eta jarraian bizi izan dela frogatzea edo, Espainiako beste toki batetik etorritakoa denean, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean ezartzen diren irizpideak betetzea.
- Banakakoaren Arreta Programan (BAP) esleitutako baliabidea.

**Zerbitzua irekita:** Eguneko 24 orduetan, urteko egun guztietan.

**Zerbitzuaren intentsitatea:**

- Berehalako erantzuna eta, behar denean, baliabideak abiaraztea gailua aktibatzen den aldiro.
- Adeitasunezko dei bat hamabostean behin.

Prestazio hau eta mendekotasunerako prestazio bermatu guztiak bateragarriak dira, salbu eta egoitzakoak.

**Emateko epea:** Hiru hilabete.

**Ordainketan parte hartzea:** Bai.

**Jarduteko eremua:**

Nafarroako Foru Komunitatea.



---

---

---

---

---